



AGINDUA, 2021EKO EKAINAREN 23KOA, HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN, OSASUNEO SALBURUAREN, ETA ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA TRANSEXUALEN DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKOA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurak arautzen dituen abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (aurrerantzean, 8/2003 Legea) zehazten du zer prozedura jarraitu behar den xedapen orokorrak egiteko.

Aipatutako 8/2003 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, 2020ko martxoaren 12an, agindua eman zuten Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuak, Hezkuntzako sailburuak eta Osasuneko sailburuak. Agindu horren bidez, hasiera eman zitaion transexualen dokumentazio administratiboari buruzko dekretu-proiektua egiteko espedienteari.

Onartu nahi den arauarekin lortu nahi diren helburuetarako araudi egokiena ezartzeko, beharrezkotzat jotako kontsultak, azterlanak eta txostenak egin dira.

Aurreko izapideak egin ondoren, eta emaitzak ikusita, transexualen dokumentazio administratiboari buruzko dekretu-proiektuaren hasierako testua idatzi da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Transexualen dokumentazio administratiboari buruzko dekretu-proiektua aldeztatik onartzea.

Bigarrena.- Lehen aipatutako araua egiteko prozedurarekin jarraitzea xedatzea, eta behar diren instrukzio-egintzak egin daitezela agintzea, hasteko 2020ko martxoaren 12ko Aginduan adierazitako premisekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 23an.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON

Osasuneko sailburua,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

XXX/2020 DEKRETUA, XXXren XXkoa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa.

2012. urtean, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 28ko 14/2012 Legea onartu zuen, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, hain zuzen, transexualei arreta integrala eskaintzeko eta, pertsona horien kondizioa, egoera pertsonala edo soziala dela eta, legerian dirauten diskriminazio guztiak gainditzeko bidean aurrera egiteko. Lege horren 7. artikulua jasotzen du transexualek, sexua berresleitzeko prozesuak dirauen artean, dokumentazio administratibo egokia izateko aukera dutela, prozesu horrek dirauen artean hobeto integratzen laguntzeko; agindu hori garatzeko, Transexualen Dokumentazio Administratiboari buruzko abenduaren 22ko 234/2015 Dekretua onartu zen.

Aipatutako dekretua indarrean sartu zenetik gaur arte, testuinguru berri bat eragin duten egoera berriak sortu dira, eta, ondorioz, ekainaren 28ko 14/2012 Legea garatzeko araudia berrikusi behar da, arau honen hartzaileen beharraz eraginkortasun handiagoz erantzuteko xedez.

Azaldu bezala, azken urteotan aurrerapauso esanguratsuak eman dira LGTBI pertsonen eskubideen alde, eta horien artean nabarmentzekoak dira honako hauek: nazioarteko testuinguruan, 2017ko azaroan hartu ziren Yogyakarta Printzipioak gehi 10, zeinek bederatzi printzipio gehigarri eransten baitizkiete jatorrizko hogeita bederatziei, eta estatuentzako betebeharrak berriak eta gomendio berriak gehitzen. Onetsitako printzipio berrien artean, besteak beste, legezko aitortzarako eskubidea nabarmentzen da, zeinaren arabera, estatuak pertsonen sexua/generoa erregistratzeari utzi behar baitiote, eta, erregistro hori egiten jarraitzen den heinean, interesdunek mekanismo azkarrak izan beharko bailituzkete hura aldatu ahal izateko.

Europar, Europako Parlamentua aitzindari izan da esparru material horretan berdintasunaren defentsan, honako ebazpen hauek emanda: 1989ko urriaren 12ko Ebazpena, transexualen diskriminazioari buruzkoa; 1994ko otsailaren 8ko Ebazpena, Europako Erkidegoko homosexualen eta lesbianen eskubide-berdintasunari buruzkoa eta lesbianen eta gayen berdintasun juridikoari eta diskriminazioaren aurkako berdintasunari buruzkoa; 2006ko urtarrilaren 18ko Ebazpena, Europako homofobiari buruzkoa, eta 2012ko maiatzaren 24ko Ebazpena, Europako homofobiaren aurkako borrokari buruzkoa, eta, azkenik, 2019ko otsailaren 14ko Ebazpena, pertsona intersexualen eskubideei buruzkoa.

Bestalde, Espainiako estatuan, aldaketa esanguratsuak eta erabakigarriak gertatu dira gai honi buruzko legeak egiteko orduan, eta, hala, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak 2018ko urriaren 23ko Instrukzioa eman zuen, pertsona transexualen Erregistro Zibilean izena aldatzeari buruzkoa. Instrukzio horren arabera, Erregistro Zibilean izena aldatzeko baldintzak ezabatu ziren, eta eskatutako izenari dagokion sexua bere sentitzearen borondate-adierazpen soilera mugatu ziren baldintzok.

Aurrekoarekin batera, nabarmentzekoa da Konstituzio Auzitegiaren 2019ko uztailaren 18ko 99/2019 Epaia, zeinak Konstituzioaren aurkakotzat jo baitzuen pertsonen sexuari buruzko erregistro-aipamena zuzentzea arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legearen 1. artikulua; izan ere, epai horrek debekuen eremu subjektiboan sartzen ditu "heldutasun nahikoa" duten eta "transexualitate-egoera egonkorrean" dauden adingabeak, eta, horregatik, praktikan ezabatu egiten du adingabe horiei Erregistro Zibilean izena eta sexuari buruzko aipamena aldatzeko debekua.

EAEEn, ekainaren 27ko 9/2019 Legearen bidez aldatu zen Genero-identitateagatik ez baztertzeko eta transexualei beren eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea.

Aldaketa horren ondorioz, eta transexualitatearen despatologizazioa agenda politikoetan gero eta gehiago sartu izanaren isla gisa, pertsona transexualaren kontsiderazio berri bat ezarri zen, zeina, orain, sexu-identitatearen autodeterminazio askerako eskubideak arautzen baitu; beraz, ez da beharrezkoa txosten mediko edo psikologiko bat egitea izate hori aitortzeko.

Transexualaren kontzeptuaren legezko definizioaren aldaketak eta abenduaren 22ko 234/2015 Dekretuaren indarraldian egindako kudeaketatik ateratako ondorioek agerian utzi dute beharrezkoa dela dekretu hori sakon berrikustea, eta, berrikuspen horren ondoren, ondorioztatu da bidezkoa dela arau berri bat egitea, ekainaren 28ko 14/2012 Legearen eduki berrietara egokituko dena eta, aldi berean, txartela egiteko prozeduran, adingabe transexualen eskubideen babesa gehiago bermatuko duten aurreikuspenak jasoko dituen eta prozedura horretan haien parte-hartzea sustatuko duena.

Dekretu honek azalpen-zati bat, zortzi artikulua, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta sei eranskin ditu.

Lehenengo artikuluan adierazten da dekretuaren xedea dela arautzea zer dokumentazio administratibo izan dezaketen transexualek, harik eta Erregistro Zibilean sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketa lortzen duten arte, edo, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen kasuan, jatorri-herrialdean erregistro-aldaketa egiten duten arte.

2. artikulua arauaren aplikazio-eremua ezartzen du, eta zehazten da nork izango duen dokumentazio administratiboa eskuratzeko aukera. Alde horretatik, eta adingabeen interes nagusia babesteko eta adierazitako borondate-adierazpenei ahalik eta ziurtasunik handiena emateko, interesdunaren gutxieneko adin bat ezartzen da dokumentazioa eskatu ahal izateko.

Bestalde, 3. artikulua dokumentazio administratiboa izapidetzeko eta egiteko organo eskuduna zein den ezartzen du, eta 4. artikulua, aldiz, egiteko prozedura arautzen. Bertan, honako alderdi hauek nabarmentzen dira: interesdunaren adina kontuan hartuta, eskabideari hasiera emateko baldintzak arautzen dira, eta, interesdunak adingabeak badira, ordezkaritza nola egiaztatu behar den zehazten da; eskabideak telematikoki aurkeztea ahalbidetzen da; aurkeztu beharreko dokumentazioa egokitzen da, Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen aldaketari jarraikiz; errolda-agiria aurkeztu ezin dutenei aukera ematen zaie benetako bizilekua egiaztatzeko.

5. artikulua prozeduraren azken ebazpenarekin zerikusia duten alderdiak arautzen ditu, eta egindako txartelaren edukia zehazten, zeina dekretu honen aurreko araudiaren arabera egindako dokumentazioa baino askoz osatuagoa baita.

6. artikuluan, dokumentazio administratiboa egitearen ondorioak ezartzen dira, eta berriaz zehazten da dokumentazio hori baliozkoa izango dela genero-identitatea egiaztatzeko bitarteko gisa indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko arloan, eta 7. eta 8. artikulua, berriz, dokumentazioaren balio-denborari eta hura berritzei buruzkoak dira.

Xedapen iragankorrei dagokienez, lehenengoak zehazten ditu arau berriak

abenduaren 22ko 234/2015 Dekretuaren arabera emandako dokumentuetan dituen ondorioak, eta bigarrenak, berriz, dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei buruzko xehetasunak arautzen ditu.

Azkenik, dekretuak sei eranskin ditu, eta, horietan, honako hauek ezartzen dira, hurrenez hurren: dokumentazio administratiboaren eskabide-eredua; adingabearen adostasuna; dokumentazioa berritzeko eta baja emateko eskabide-inprimakiak; erantzukizunpeko adierazpenaren eredua, interesdunaren eta haren guraso edo tutore baten artean gatazka badago, eta, azkenik, eskabidearekiko adostasuna adierazi behar duten pertsonentzako adierazpen-inprimakia, baldin eta hala egitea badagokie.

Aurrekoa oinarri hartuta, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren adostasunarekin eta Gobernu Kontseiluak 2020ko xxxaren xx(e)(a)n egindako bilkuran azertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da transexualek izan ahal izango duten dokumentazio administratiboa arautzea, harik eta Erregistro Zibilean sexuari buruzko aipamena aldatzen duten arte, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkin transexualen kasuan, jatorri-herrialdean erregistro-aldaketa egin ahal izan arte.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Dekretu honen bidez araututako dokumentazio administratiboa eskuratu ahal izango du benetako bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean duen 4 urtetik gorako pertsona orok, ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera transexualak direnak, erregistroan sexuari buruzko aipamena jada aldatu dutenek izan ezik.

3. artikulua.– Eskumena.

Askatasun afektibo-sexualaren esparruan pertsonen berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko eskumena duen zuzendaritzari dagokio dekretu honen bidez araututako dokumentazio administratiboa izapidetu eta egitearekin eta horretarako beharrezkoak diren fitxategien gaineko erantzukizunarekin lotutako egitekoak betetzea.

4. artikulua.– Egiteko prozedura.

1.– Interesdunak eskatzen duenean hasiko da dekretu honetan araututako dokumentazioa egiteko prozedura, baldintza hauetan:

a) 16 urtetik gorakoek beren kabuz edo behar bezala ordezkatuta aurkeztu ahal izango dute eskabidea.

b) 16 urtetik beherakoek kasuan, legezko ordezkariak duten pertsonak egingo dute eskabidea.

Eskabidea adingabearen gurasoek aurkezten badute, biek sinatu beharko dute, salbu eta guraso-ahalaren egikarritza ez badago bietako bati eskusiboki esleituta, edo adingabearen eta gurasoetako baten artean gatazka badago dekretu honetan araututako dokumentazio-eskabidea aurkezteari dagokionez.

Adingabea tutoretzapean badago, erakunde publikoak edo tutoretza hori duen

pertsonak edo, hala badagokio, pertsona fisikoak aurkeztuko du eskabidea. Pertsona batek baino gehiagok batera badute tutoretza, guztiek sinatu beharko dute eskabidea, salbu eta adingabearen eta pertsona horietakoren baten artean gatazka badago eskabide hori aurkezteari dagokionez.

Familia-harrera **iraunkorreen** dauden adingabeen kasuan, pertsona edo familia harreragileek aurkeztu ahal izango dute eskabidea, horretarako tutoretza duen erakunde publikoaren berriazko baimena badute.

Borondatezko jurisdikzioaren dagokion prozeduran behar bezala izendatutako defendatzaile judizialak ere egin ahal izango du eskabidea, edo Fiskaltzak, adingabearen defendatzaile judizialaren edo tutorearen izendapenik ez dagoen artean.

c) Nolanahi ere, adingabe interesdunak 12 urte baino gehiago eta 16 baino gutxiago baditu, eskabidea aurkezteko, bere adostasuna izan beharko da beti, eta hori idatziz jasoko da, eta, adinez gazteagoa bada, aldiz, eskubidea izango du informazioa jasotzeko, entzuna izateko eta iritzia emateko prozeduran, bat etorritik Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 9. artikuluan xedatutakoarekin (Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen ditu lege horrek).

2.– Aurrez aurre nahiz elektronikoki aurkeztu daitezke eskabideak.

Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du esan hortik aurrera ere prozedurako gainerako izapideak bide bera erabiliz egin behar direnik, edozein momentutan alda baitaiteke aukeratutako bidea.

Aurrez aurrekoa: Eusko Jaurlaritzako Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan aurkez daitezke eskabideak.

Elektronikoa: helbide honetara sartuz egingo dira eskabideak:
<https://www.euskadi.eus/informacion/eXXXXXXXXXXXX-a2berdin/es/>

Eskabidea egin ondorengo izapideak, elektronikoki, helbide honetan egingo dira:
<http://www.euskadi.net.misgestiones>.

3.– Eskabideak, elektronikoki zein aurrez aurre, dekretu honen I. eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera gauzatuko dira.

Eskabidean, interesdunaren identifikazio berriari buruzko datuak jaso beharko dira, eta, horretarako, saihestuko da, berez edo abizenekin konbinatuta, duintasunaren kontrakoak diren edo identifikazioa nahasgarri egiten duten izen propioak erabiltzea.

2.– Instantzia normalizatuak eta horiek betetzeko jarraibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri, hemen XXX.

4.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Interesdunaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia. Horretarako, honako dokumentu hauetakoren bat aurkeztu beharko da: Nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaimena, atzerritarren nortasun-txartela edo jatorri-herrialdeko agintaritzaren eskudunak egindako dokumentu ofizial oro, identifikatzeko balio duena; dagokion agintaritzaren kontsularrak ziurtatu beharko du hori, zalantzarik baldin

badago. Nolanahi ere, erabilitako dokumentuan argazki bat eta emailearen sinadura agertu beharko dira.

14 urtetik beherakoen kasuan, nortasun agiri nazionalaren bidez egiaztatu ahal izango da nortasuna; adingabe atzerritarren kasuan, aldiz, jatorri-herrialdeko dokumentu baliokidearen edo pasaportearen bidez egiaztatuko da, halakorik badute, eta, hala ez bada, jatorri-herrialdeko familia-liburuaren edo dokumentu baliokidearen bidez, edo Erregistro Zibilaren arduradunak, edo, hala badagokio, jatorri-herrialdeko agintaritza eskudunak emandako hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiriaren bidez.

Nortasun agiri nazionala edo atzerritarren nortasun-txartela aurkeztu ordez, organo kudeatzaileari baimena eman ahal izango zaio agiri horietako informazioa eskuratzeko, zeina eskabide-inprimakian sartuta baitago.

b) Interesdunaren aurpegiaren oraintsuko argazki bat, nortasun-agirikoaren moldekoa eta koloretakoa.

c) Interesduna bizi den udalerriko udalaren erroldatze-ziurtagiria, gehienez ere dokumentazioa eskatu baino hiru hilabete lehenago egina.

Dokumentu hori aurkeztu ordez, organo kudeatzaileari baimena eman ahal izango zaio dokumentu horretako informazioa eskuratzeko, zeina eskabide-inprimakian jasota baitago.

Ezintasunen bat tarteko (bizilekurik ez duelako, bere etxean erroldatzeko ezintasuna duelako edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk dituelako), interesdunak ezin badu errolda-ziurtagiriaren bidez bere bizilekua egiaztatu, benetako bizilekua egiaztatzeko, administrazioren baten dokumentu ofizialak, kontsulatuak egindako bidaia-gutuna, elkargoetako inskripzioak, gizarte-zerbitzuetarako bisiten erregistroa edo antzekoak aurkeztu ahal izango ditu.

d) Ordezkaritza bidez jardunez gero, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

– Ordezkaritza bidez jardunez gero, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

– 12 urtetik gorako eta 16 urtetik beherako interesdun adingabearen baimena, II. eranskinaren arabera.

– Ordezkaritza bidez jardunez gero, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1) Ordezkaritza bidez jardun behar duten 16 urte edo gehiago duten pertsonen buruzko eskabideen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren helbide elektronikoa eskuragarri dagoen borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua erabili ahal izango da (https://www.euskadi.eus/contenidos/formulario/representacion_legal/es_form/adjuntos/formulario_otorgamiento_representacion_guardable.pdf), edo zuzenbidean baliozkoa den bestelako baliabide batez egiaztatuko da ordezkaritza.

2) 16 urtetik beherakoei buruzko eskabideen kasuan, honela egiaztatuko da pertsona horien ordezkaritza:

a) Eskabidea adingabearen gurasoek aurkezten badute, familia-liburuaren kopia zein ahaidetasuna egiaztatzeko jatorri-herrialdeko dokumentu baliokidearen kopia aurkeztu beharko da, edo adingabearen hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria.

Aurrekoaz gain, eskabidea gurasoetako batek bakarrik sinatzen badu, dokumentu

hauetakoren bat aurkeztu beharko da:

– Erantzukizunpeko adierazpena, eskabidea aurkezteari dagokionez, adingabe interesdunaren eta beste gurasoaren arteko gatazka dagoela adierazten duena, V. eranskinaren arabera.

– Ebazpen judiziala, adingabearen guraso-ahala eskusiboki eskabidea aurkezten duen gurasoari esleitzen diona.

b) Guraso ez den beste pertsona fisiko batek edo pertsona juridiko batek egiten badu eskabidea, honako dokumentu hauetako baten bidez egiaztatuko da adingabearen ordezkariak:

– Adingabearen tutoretza eratu izana egiaztatzeko dokumentazioa. Tutoretza pertsona batek baino gehiagok batera duten kasuan, baldin eta adingabe interesdunaren eta tutorearen baten artean gatazka badago eskabidea aurkezteari dagokionez, gatazka horren berri ematen duen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko dute eskabidea egiten duen tutoreak edo tutoreek, V. eranskinaren arabera.

– Defendatzaile judiziala izendatzeko ebazpen judiziala.

c) Familia-harrera **iraunkorrean** dauden adingabeen kasuan, harrera hori formalizatu izana egiaztatzen duen dokumentazioa, eta tutoretza duen erakunde publikoaren baimena eskabidea aurkezteko.

5.– Eskabideak ez baditu galdatutako eskakizunak betetzen edo aurkeztutako dokumentazioa ez badago osorik edo akastuna bada, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Horrez gain, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraikiz, eskabideari uko egin diola ulertuko dela, aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera eman ondoren.

Eskatutako dokumentuak zuzentzeko edo aurkezteko zailtasun bereziak daudenean, bost egun gehiagoz luzatu ahal izango da hamar egun balioduneko epea, ofizioz edo pertsona interesdunak eskatuta, eta luzapen hori aplikatuko da, edonola ere, interesduna atzerritarra den eta jatorri-herrialdeari dokumentazioa eskatu behar dion prozeduretan.

6.– Doakoak izango dira dekretu honetan araututako dokumentazio administratiboa egiteko izapideak.

5. artikulua.– Ebazpena.

1.– Interesduna dekretu honen aplikazio-eremuan sartuta dagoela egiaztatu ondoren, eskatutako dokumentazioa emateko administrazio-ebazpena emango du askatasun afektibo-sexuala errazten duten baldintzak sustatzeko eskumena duen zuzendaritzako titularrak; gutxienez honako datu hauek dituen txartel bat izango da:

a) Izena, abizenak, jaioteguna, genero-identitatea eta NANaren, AIZren edo pasaportearen (izanez gero) zenbakia.

b) Onuradunaren helbidea.

c) Txartela noiz egin den.

- d) Txartelaren indarraldia noiz amaitzen den.
- e) Organo eskudunaren sinadura, eman dezan.
- f) Organo kudeatzailearen zigilu ofiziala.

2.– Hilabetekoa izango da ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea, eskabidea izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan jasotzen den egunetik aurrera. Aipatutako epea bukatutakoan, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea baietsizat joko da, hargatik eragotzi gabe berariazko ebazpena emateko administrazioak duen betebeharra.

6. artikulua.– Dokumentazio administratiboa egitearen ondorioak.

1.– Dekretu honen bidez araututako dokumentazio administratiboaren emate-ebazpena jakinaraziko die askatasun afektibo-sexuala errazteko baldintzak sustatzeko eskumena duen zuzendaritzak dokumentazio horren titularrak bere eskabidean berariaz adierazitako administrazio publikoei.

2.– Hargatik eragotzi gabe aurretik adierazitakoa, aipatutako dokumentazio administratiboaren titularrak une oro jo ahal izango du organo eskudunera, aipatutako dokumentazioa emateko ebazpena jakinarazi behar zaien administrazio publikoen zerrenda eguneratu dezan eskatzeko.

3.– Euskal administrazio publikoek, parte hartzen duten kasu eta prozedura guztietan, neurriak hartu beharko dituzte (administratiboak eta bestelakoak), dekretu honen bidez ezarritako dokumentazio administratiboa duten pertsonak libreki aukeratutako genero-identitatearen arabera tratatuak izan daitezen eta identitate horri dagokion izenarekin identifikatuak izan daitezen bermatzeko.

Halaber, eskubide hauek izango dituzte dekretu honetan araututako dokumentazioaren titular direnek:

a) Osasun-eremuan, dokumentazio administratiboa egokitzeko eskubidea; Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren ardurapeko pertsonaren inguruko mediku-historia konfidentzian egindako beharrezko erreferentzien salbuespenarekin.

b) Hezkuntza-eremuan, ikastetxeko dokumentazio administratiboa egokitzeko eskubidea, hala nola, ikasgelako zerrendak, kalifikazioen informazio-buletina, ikasle-txartela, hauteskunde sindikal edo administratiboetarako hautesle-errola eta bestelakoak. Helburua hau da: arau honetan xedatutakoaren arabera egindako dokumentazio administratiboan adierazitakoari jarraikiz, kontuan hartzea ikasle, langile eta irakasle transexualen genero-identitatea.

Aurretik adierazitakoa gorabehera, ondorio ofizialetarako erregistratutako nortasun-datuei eutsiko zaie ikaslearen espediente ofizialean.

4.– Baldin eta, dekretu honen arabera egindako dokumentazioan, emakume sentitzen dela jasotzen bada genero-identitateari dagokionez, aipatutako dokumentazioaren bidez egiaztatuko da genero-identitate hori, ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 6.3 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko indarkeria matxistaren biktimei arreta ematearen esparruan.

5.– Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, dekretu honetan aurreikusitako dokumentazioa egiteak ez du aldatuko dokumentazio hori lortzen duen pertsonari dagozkion eskubideen eta betebeharren titulartasun juridikoa, ez eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia alboratuko ere, zenbakia agertu behar bada.

7. artikulua.– Balio-denbora.

1.– Dekretu honetan araututako dokumentazio administratiboak bost urteko indarraldia izango du, egiten den egunetik aurrera.

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, aipatutako dokumentazioaren titularrek, sexuari edo izenari buruzko erregistro-aldaketa dokumentazio hori egin eta gero lortzen badute, horren berri eman beharko diote askatasun afektibo-sexuala errazteko baldintzak sustatzeko eskumena duen zuzendaritzari, eta zuzendaritza horrek baja emango die dagozkien tratamendu-jardueren erregistroetan, eta dagokien administrazio publikoei jakinaraziko die. Jakinarazpena dekretu honen IV. eranskinean ezarritako ereduaren arabera egingo da.

Halaber, lehen aipatutako zuzendaritzak bestelako bideren batetik jakiten badu dekretu honetan araututako dokumentazioaren titular batek lortu duela Erregistro Zibilean edo, hala badagokio, jatorri-herrialdeko erregistroan izenari edo sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketa, ofizioz baja emango dio tratamendu-jardueraren erregistroetan, eta pertsona horri eta dagokion administrazio publikoari jakinaraziko die.

8. artikulua.– Identifikazio-txartela berritzea.

1.– Dekretu honetan xedatutakoaren arabera egindako dokumentazio administratiboaren titularrek dokumentazio hori beste bost urtez berritzeko eskatu ahal izango dute. Horretarako, dagokion eskabidea egin beharko dute, dokumentazioaren indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago.

2.– Halaber, honako kasu hauetan berritu ahal izango da aipatutako dokumentazioa: txartela galdu edo lapurtzen bada; argazkia edo dokumentuan adierazitako datu pertsonalak aldatzen badira, edo, dokumentazio hori emateko eskumena duen zuzendaritzaren iritziz, justifikatutako beste edozein inguruabarrengatik.

3.– Berritzeko eskabideak dekretu honen III. eranskineko ereduaren arabera egingo dira, eta 4. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Abenduaren 22ko 234/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera egindako dokumentazio administratiboaren titularrek sei hilabeteko epea izango dute, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera, dekretu honetan araututako dokumentazio berria eskatzeko, zeinak bere garaian emandakoa ordeztuko baitu abenduaren 22ko 234/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Sei hileko epe hori igarota, baliozkotasuna galduko dute abenduaren 22ko 234/2015 Dekretuan oinarrituta egindako dokumentu guztiek.

Bigarrena.– Dekretu hau indarrean sartu baino lehenago hasitako prozedurak abenduaren 22ko 234/2015 Dekretuan xedatutakoaren arabera ebatziko dira, baina arau honen 5. eta 7. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira egindako dokumentazioaren edukia, eragina eta balio-denbora.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratzen da abenduaren 22ko 234/2015 Dekretua, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko XXXaren XX(e)(a)n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.



I. eranskina

TRANSEXUALEEN DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOEN ESKABIDEA

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

 Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak (zure egungo dokumentazioan agertzen direnak)

Titularra

Izena *

Telefonoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lehen abizena *

Bigarren abizena *

Sexua Emakumea

Identifikazio dokumentua *

Zenbakia *

 Gizona

Helbide elektronikoa:

Jaiotz-data:

Nazionalitatea:

Erroldatze-udalerrria:

Lurralde historikoa:

Erroldatze-helbidea:

Zk

Solairua

Letra

PK *

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena

Telefonoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Emakumea

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia

 Gizona

Posta elektronikoa:

Jakinarazpenetarako datuak

Komunikazio-hizkuntza *

Euskara Gaztelania

Jakinarazpen- eta komunikazio-kanala *

Posta bidez: Atal honetan adierazitako posta-helbidera bidaliko dira.

Helbidea *

Zk. _____ Solairua _____ Letra _____

PK *

Probintzia * _____

Udalerrria * _____

Bide elektronikoa: «Nire karpeta»ko jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Hor sartzeko, [identifikazio elektronikoko baliabide](#) bat behar da.

** **Bide elektronikoari buruzko oharra:** Jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat joko da Nire karpetan eskuragarri jartzen denetik 10 egun natural igarotakoan. Epe hori igarotakoan, jakinarazpena ezetsizat joko da, eta hala jasoko da espedientean. Izapidea egintzat joko da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

Ohar bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera, Nire karpetan jakinarazpen edo komunikazioen bat daukazunean.

Helbide elektronikoa * _____

Telefono mugikorra

Baimenak

Baimena ematen diot organo kudeatzaileari bizileku-datuak kontsultatzeko Estatistikako Institutu Nazionalaren aurrean

Baimena ematen diot organo kudeatzaileari nortasun-datuak kontsultatzeko NAN edo ANTaren aurrean.

Dokumentazio berriaren datuak

Izena *

Sentitutako sexua *

Gizona

Emakumea

Dokumentazio berria jasotzeko bidalketa-helbidea

Helbidea *

Zk. _____

Solairua _____

Letra _____

PK *

--	--	--	--	--

Probintzia * _____

Udalerría * _____

Beste administrazio batzuei datuak aldatu izana jakinarazteko eskabidea

Datu-aldaketa honako administrazio/zerbitzu publiko hauei jakinarazteko eskatzen dut.

Eusko Jaurlaritzakoak:

Osakidetza Lanbide Gazte Txartela Ertzaintza Eustat

Hezkuntza (zehaztu ikastetxea) _____

Beste batzuk (zehaztu) _____

Foru Aldundikoak:

ko Foru Aldundikoak

Ogasuna Eskolako Kirola Garraio-txartelak Gizarte-zerbitzuak

Beste batzuk (zehaztu) _____

Udalekoak:

(e)ko/go Udala _____

Udal Liburutegiak Udal Kiroldegiak Zergak

Gizarte Zerbitzuak Udaltzaingoa

Beste batzuk (zehaztu) _____

Beste batzuk (zehaztu) ¹:

¹ Zehaztu egin behar da eskatzaileak zein zerbitzuekin duen administrazio-harremanen bat, eta ez da baliozkoa izango "guztiei" motako erreferentzia orokorrik.

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta **Transexualen dokumentazio administratiboaren izapidetzea** izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira:

- **Arduraduna:** Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasunaren Zuzendaritza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.
- **Xedea:** Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 7. artikuluko dokumentazio administratiboaren eskubideak izapidetzea.
